



AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2021eko APIRILAREN 22an EGINIKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

UDALBURUA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita bateko apirilaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, M^a Del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

EZ DA BERTARATU:

Karmele Población Martínez and.

IDAZKARIA:

M^a Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko martxoaren 18an eginiko ohiko bilkuraren akta. Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du aktaren 19. orrialdean, Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andrearen esku-hartzean, Miren izena jartzen duela Marian jarri beharrean.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esan du uste duela aktan ez dela oso garbi adierazi alkateak agindu zuena Herri Urratsen dirulaguntzari dagokionez; alkateak adierazi zuen jarduera osasun arrazoiengatik egin ezin izatekotan, haiekin harremanetan jarriko zela dirulaguntzarik gabe ez geratzeko. Hori horrela adierazi behar da aktan.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du ekintza nahitaez egin behar dela, beste formatu batean egin arren.

Esku-hartze guztiak amaitu ondoren, aipatutako akta aho batez onetsi da.

2.- 2021 ekitaldirako Udaleko Aurrekontua onesteko Udalbatzaren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2021 ekitaldiko Udaleko Aurrekontua onesteari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:



**“ 2021eko UDALEKO AURREKONTUA ONESTEKO
ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA** Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren eta Iraunkorraren 2021eko martxoaren 3an egindako Ezohiko Bilkuran jakinarazi dela zein den 2021eko Udaleko Aurrekontuko proiektua. Horren zenbatekoa, gastu zein diru-sarreretan, 2.268.152,47 eurokoa da. Era berean, Udaleko Talde Politikoei, nahiko balute, 2021erako aurrekontuaren proiektuaren zuzenketak aurkezteko epea emango zaie, eman zaizkien zuzenketa-ereduen arabera.*

***IKUSI DA** zuzenketak aurkezteko epean zehar horiek aurkeztu direla. Horietako batzuk onetsi egin dira eta onetsi beharreko aurrekontuaren proiektuan sartu dira.*

***IKUSI DA** Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren eta Iraunkorraren 2021eko apirilaren 13an egindako bilkuran, onetsitako Zuzenketak zituen Aurrekontuaren proiektuaren aldeko txostena eman zela.*

Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako akordio hau onetsi dezala:

***Lehenengoa.-** Hasiera batean onestea 2021 ekitaldirako korporazio honen aurrekontu orokorra, 2.268.152,47 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluaren laburpena:*

KAPITULUAK	DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €tan
	A) OHIKO ERAGIKETAK	2.257.764,97 €
1	ZERGA ZUZENAK	685.000,00 €
2	ZEHARKAKO ZERGAK	30.000,00 €
3	TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	249.070,98 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.288.801,10 €
5	ONDARE-SARRERAK	4.892,89 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	10.387,50 €
6	BENETAKO INBERTSIOAK ETA HIRIGINTZA JARDUERETATIK ERATORRITAKO BESTELAKO DIRU SARRERAK BESTERENTZEA	0,00 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	10.387,50 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
	DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	2.268.152,47 €



KAPITULUAK	GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €tan
	A) OHIKO ERAGIKETAK	2.195.383,03 €
1	LANGILEEN GASTUAK	745.095,55 €
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA	714.103,47 €
3	FINANTZA-GASTUAK	2.000,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	733.155,32 €
5	KREDITU GLOBALA ETA AURREIKUSI GABEKO BESTE BATZUK	1.028,69 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	72.769,44 €
6	INBERTSIO ERREALAK	72.769,44 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	0,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
	GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	2.268.152,47 €

Bigarrena.- Aintzat hartzea EH Bildu Udal-taldearen bosgarren zuzenketa eta gainerako zuzenketak baztertzea. Beraz:

- GASTUEN AURREKONTU-PARTIDA HANDITZEA:

601002 “Bide eta ibilbide osasungarrien sarearen proiektua”

Zenbatekoa: + 5.000,00 €.

Hasierako zenbatekoa: 5.000,00 € Amaierako zenbatekoa: 10.000,00 €

Finantzazioa: 226009 “Gazteleku” partida erabiltzea (5.000,00 €)

Hirugarrena.- Aintzat hartzea AIARA BATUZ Udal-taldeak aurkeztutako 12. zenbakiko zuzenketa eta “Bide eta Ibilbide osasungarrien sarearen proiektuari” dagokiona, goian adierazitako moduan. Aurkeztutako gainerako zuzenketak baztertzea. Beraz:

- GASTUEN AURREKONTU-PARTIDA SORTZEA:

“Murga Industrialdeko bide-seinaleztapen horizontala egokitzea”

Zenbatekoa: 3.330,00 €.

Finantzazio modua: Udal-ikastaroak egiteko aurrekontu-aplikazioan dirua murriztu da.

Laugarrena.- 2021erako Udal-aurrekontu hau behin betiko onetsi eta indarrean egotean, konpromisoa hartzea Udalbatzak dagokion aurrekontu-aldaketaren espedientea sinatzeko, kreditu gehigarriaren bidez, eta 2020 ekitaldiko likidatzearen emaitza diren gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakin likidoan karguarekin finantzatuta. Adierazitako kreditua aurtengo ekitaldia hornitzeko da eta honako aurrekontu-aplikazio hauekin egingo da:

- 943.734000 Obregatik Administrazio Batzordeen dirulaguntzak (35.000,00 €).
- 943.734001 Teknikarien ordainsariak ordaintzeko Administrazio Batzordeei



dirulaguntzak (35.000,00 €).

Era berean, 943.434000 (Udalerriko Administrazio Batzordeen finantzazioaren Transferentzia) aurrekontu-partidari dagokionez, dagokion aurrekontu-aldaketaren espedientea izapidetuko da, kreditu gehigarriaren bidezkoa. Hori 2020 ekitaldiko likidazioaren emaitzan sortutako gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakin likidoa aintzat hartuta finantzatuko da, aipatutako aurrekontu-partidaren kreditua 136.304,70 eurora handitu arte, hartutako konpromisoen arabera.

Horrek guztiak ez du eragotziko gobernu taldeak egokitzen jotzen dituen beste aldaketa batzuk izapidetzea.

Bosgarrena.- *Onestea Aurrekontua Gauzatzeko Udal-araua.*

Seigarrena.- *Lanpostu zerrenda onestea, baita aurrekontuarekin batera dauden eranskin guztiak ere.*

Zazpigarrena.- *Behin betiko onestea 2021eko dirulaguntzen plan estrategikoa, 2021. urteari dagozkion dirulaguntzekin.*

Zortzigarrena.- *Espediente hori jendaurrean ikusgai jartzea hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez daitezzen, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.*

Bederatzigarrena.- *Aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da, aipatu epean horren kontrako erreklamaziorik aurkezten ez bada. Kontrako kasuan, Udalbatzak hilabeteko epea izango du auziak ebazteko.*

Hamargarrena.- *Behin betiko onetsitako aurrekontua 3/2004 Foru Arauaren 15. artikulua 3. atalean adierazitako moduan argitaratuko da.*

Hamaikagarrena.- *Behin betiko erabakiarekin batera Erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.*

Hamabigarrena.- *Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du Aurrekontuaren alde bozkatuko duela, ulertzen dutelako aurkeztutako zuzenketak aintzat hartu direla. Esan du “Bide eta ibilbide osasungarrien sarearen proiektua” izeneko aplikazioaren esleipena handitu dela, Murga Industrialdeko lurrian stop seinaleztapenak margotuko direla, eta, gainera, Administrazio Batzordeen finantzazioa osatu egingo dela diruzaintzako gerakinaren kargura eta Etxaurren Ikastolako luminariak ordeztzea baloratzen ari direla, etab. Horrez gain, esan du Etxaurrengo Kirol-pista egokitzeko obrari dagokionez, Gobernu Taldeak pentsatu duela datorren urteko Obra Txikien Planaren kargura egitea pentsatu duela. Baskularen mekanismoa digitalizatzeari buruzko zuzenketari dagokionez, kostuak merkatzeke eta zerbitzua hobetzeko, adierazi du egokiena Murgako industrialdera eramatea dela, eta, oraingoz egiterik ez bada ere,



poligonoa urbanizatzeko proiektuaren idazketan jaso daiteke, eta aurrerago udalarentzat biltegi gisa balioko duen pabiloi bat erostea ere proposa daiteke.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Aiara Batuz taldeak proposatutako gai askorekin ados daudela, baina batzuk ezin izan dira aurten gauzatu aurrekontuan ez zegoelako nahikoa zenbatekorik. Esan du TEFFFetik datozen diru-sarrerak 2019koak baino baxuagoak direla.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esan du aurrekontuaren aurka bozkatuko dutela, baina ez litzatekeela horrela izan beharko; aurreko urteetan bezala, onesten diren eta gero gauzaten ez diren partidak daude. Uste dute aiatararren diruarekin jolasean ari direla. Adibide gisa, esan du partida bat eskatu zutela bizikletak garbitu eta egokitzeko, eta orain dela gutxi jakin izan dutela gauzatuko dela, baina ez da Batzordean landu eta ez da horren gastua egungo aurrekontuan adierazi. Horrez gain, adierazi du herriko jaietako jardueretan sortutako gastuak daudela, baina ez daudela aurrekontuan adierazita. Aipatu du aurrekontuan sartuta ez dauden gastuak izatea ez dela batere gomendagarria, gardentasuna kentzen digulako; gainera, horren ondorioz, gerakina gehiegi erabiltzeko joera egon daiteke. Horrek guztiak proiektu falta islatzen du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du harritu egiten dela entzutean gerakinaren erabilera txarraren inguruan hitz egiten entzutean; izan ere, EH Bildu izan zen hori erabiltzea proposatu zuena Luiaondon bainua jartzeko. Amaitzeko, adierazi du Udalak eta Gobernu Taldeak ez duela aiatararren diruarekin jolasten; horien bizitza hobetzeko inbertitzen du: TAG lanpostu bat sortu da, lan-poltsak sortuko dira, gardentasun-atari bat egingo da, etab. Jaien gastuari dagokionez, gaineratu du ez daudela aurrekontuan gerakina erabili zelako; izan ere, pandemiagatik ezin dira denbora eta epe aurreikuspenik egin eta jarduera batzuk egiteko ezin genuen aurrekontua onetsita egon arte itxaron. Bestalde, esan du gerakina erabiltzeko sistema beste aurrekontu-mugei dagokienez egoera berean dauden Gobernu Talde batzuek ere erabiltzen dutela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esan du ez dutela esan gerakina erabili behar denik, baizik eta gehiegi erabiltzen ari dela. Horrez gain, gaineratu du ez zaiola gustatzen aurreko Gobernu Talde batzuen inguruan hitz egitea, garai ezberdinak zirelako eta haiek ez direlako hor egon.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du beste Gobernu Talde eta Udalei egiten ziela erreferentzia, iraganekoei eta gaur egungoei. Gainera, adierazi du EH Bilduren argudioa dela Aurrekontuaren aurka bozkatzeko. Horrez gain, esan du diruzaintzaren gerakina erabiltzen jarraituko dutela, aurrekontuaren barneko tresna bat delako eta horrek jasotzen ez dituen gastuei aurre egitea ahalbidetzen digulako.

Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren eta Iraunkorraren 2021eko apirilaren 13ko bilkuran, aldeko txostena eman zen 2021 ekitaldirako Udaleko Aurrekontuaren Udalbatzaren hasiera bateko onespenerari dagokionez.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta erabaki du, AIARA BATUZ udal-taldearen aldeko botoarekin eta EAJ-PNV udal-taldearen bi kideen aldeko botoarekin, eta EH Bildu Udal-taldearen bi kideen aurkako botoarekin, onestea 2021erako Udal-aurrekontuaren onespenerari dagokion erabaki-proposamena, idatzi den moduan.



3.- 2021. urterako kultura, kirol eta gizarte arloari dagozkion dirulaguntzak emateko Deialdia eta Oinarriak.- Jarraian, Udalbatzari 2021. urterako kultura, kirol eta gizarte arloari dagozkion dirulaguntzak emateko deialdiaren berri eman zaio. Horren testua honako hau da:

**“2021. URTERAKO KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO
DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- OINARRI HAUEN XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Aiarako Udalak 2021. urtean zehar ematen dituen dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak gauzatzeko, udalean daudenekiko osagarriak izango direnak eta Aiarako herritarrentzako interes publiko edo soziala izango dutenak. Hala, aipatutako ekintza arloetan Udaleko hainbat arloek aurreikusitako helburuak betetzea erraztuko da.

Dirulaguntzak Aiarako Udalak onetsitako udaleko dirulaguntzak emateko ordenantza arautzaile orokorraren arabera emango dira. Horrez gain, otsailaren 7ko Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko 3/1997 Foru Arauaren, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren eta aplikatu daitezkeen legeria osagarri guztiaren arabera.

2. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA-ILDOAK, DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Jarraian interesdunek dirulaguntzen eskabideak egiteko aintzat hartu behar dituzten bi dirulaguntza-ildoak aurkeztu dira:

1.- Inbertsio-gastu eta ohiko gastuetarako urteko dirulaguntza; horretan, gehienez ere oinarri hauetan diruz lagundu daitezkeen gastuen % 80 ordainduko da soilik.

2.- Urtean zehar egingo diren jarduera eta proiektuetarako dirulaguntza; horietan, gehienez ere 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean sortutako eta diruz lagundu daitezkeen gastuen % 80 ordainduko da.

Aipatutako bi dirulaguntza-ildoak bi arlotan bana daitezke: Ekintza Soziokulturala eta Kirol-ekintza, biak ondoren zehaztutako diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak dituzte.

3. ARTIKULUA.- AURREKONTU-ZUZKIDURA.

2021erako luzatutako 2020ko udal-aurrekontuko 330.481.004 kontu-sailaren kargura egotziko da gastua.

Aipatutako partida horren gehieneko kreditua eta, beraz, dirulaguntzen deialdi honetarako gehieneko aurrekontu-zuzkidura, 35.000,00 eurokoa izango da.



4. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMA ETA JARDUERAK.

Oinarri hauek honakoa arautzen dute:

4.1.- INBERTSIO-GASTU ETA OHIKO GASTUETARAKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA.

Mantentze-lanen ohiko gastuak diruz lagunduko dira.

Elkarte guztiei ematen zaizkien ohiko gastuen dirulaguntzak ezin izango dira aurrekontu-partida baino % 25 handiagoak izan. Era berean, elkarte batek berak ere ezingo du 1.000,00 euro baino gehiagoko dirulaguntza eskatu jarraian adierazitako kontzeptuengatik:

- *Lokalaren garbiketa, konponketa eta mantentze-lanen gastuak.*
- *Elkarteak gauzatzen duen jarduerarekin zuzeneko lotura duen materiala eta/edo ekipamendua erostea. Ekipamendua eta/edo altzariak erostean, elkarteak ezin izango du horretarako laguntzarik eskatu deialdi hau igaro eta lau urtean zehar.*
- *Aseguruak, jarduera bat antolatzeke kontratatzen direnak izan ezik; kasu horretan, jarduerak egiteko dirulaguntza-ildotik eskatu beharko da dirulaguntza.*
- *Txapelketetarako federazio fitxen gastuak, kirol-elkarteen kasuan, Aiaran erroldatutako pertsona eta elkarteko kide bakoitzeko.*

4.2.- URTEAN ZEHAR PROIEKTUAK ETA JARDUERAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA.

Elkarte bakoitzak jarduera eta proiektuetarako eska dezakeen gehieneko zenbatekoa 2021. urtean zehar ezin izango da 6.000,00 euro baino gehiagokoa izan.

Dirulaguntza AIARako herritar guztiei irekitako jardueretara mugatuta egongo da eta horien iragarkiak egon beharko dira ohiko komunikabideetan (udaleko whatsapp, udal-webgunea eta kartelak).

Dirulaguntza lortzeko, eskatzen den informazio guztia eta diruz lagundutako jardueren kartelen ale bat aurkeztu beharko dira, honako irizpide hauek betez:

- *Udalaren logotipoa.*
- *Euskara ezartzeko beharrezko hizkuntza-irizpideak (nahitaez bete beharreko irizpideak erantsi dira).*
- *Genero ikuspegia ezartzeko beharrezkoak diren berdintasun-irizpideak (hizkuntza eta irudi inklusiboak).*

4.2.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira proiektuari loturiko honako kontzeptu hauek:

ELKARTE SOZIOKULTURAL ZEIN KIROL-ELKARTEENTZAT

- **Elkartearen jarduera kolektibo bati lotutako garraioa.**



Honako garraio gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- *Autobus bat kontratatzeako gastuak.*
- *Garraio publikoko gastuak: autobusa, trena, taxia, etab.*
- *Ibilgailu partikularretan egiten diren elkarteen joan-etorriek eragindako gastuak, gizarte-, kultura- eta kirol-ekitaldietan parte hartzeko, gutxienez lau pertsona izanda. Kilometro bakoitzeko gehienez ere 0,29 euroko prezioa ezarriko da eta erreferentzia gisa elkarteko egoitzaatik ateratzea hartuko da.*

Ibilgailua gidatzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena erantsi beharko da, edota jarduera antolatzen duenarena. Bertan ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiarakoa izan beharko du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuko bidaiarien identifikazioa adierazi beharko dira.

- *Haurrentzako animazio-jarduerak.*
- *Txokolatadak, lunchak, askari handiak, **diruz lagundutako jarduera bati lotuta egon beharko dute beti** eta horien gehieneko zenbatekoa 150,00 eurokoa izango da. Ezin izango dira diruz lagundu: litxarreriak, opil industrialak, edari gaseoso, azukretu edo alkoholikoak, berreskurapen fisikorako glukosa beharrezkoa den kirol-probetan izan ezik.*
- *Jai tradizionalak antolatzea (Olentzero, Erregeen kabalgata, etab.)*
- *Paperean zein era digitalean lanak editatzea, Aiara ardatz nagusi gisa izanda, gehienez ere 500,00 euroko zenbatekoan; gainera, lan hori udalerrian hedatzeko konpromisoa eta irabazi asmorik gabe egitearen baldintza bete beharko da. Dagokion batzordean erabakiko da gaia edo proposamena oinarri hauen filosofiara egokitzen den.*
- *Elkarteak gauzatutako jarduera bati lotutako haurtzaindegi zerbitzua.*
- *Baliabide prebentiboak hartzea jarduerarako beharrezkoak direnean.*

KIROL-ELKARTEENTZAT

*Kirol-txapelketak antolatzea, baita kirol-erakusketak eta mendi-irteerak ere, jarduera gauzatzeko beharrezko gastuak barne hartuta, eta txapelketetan banatuko diren sariak barne hartuta. Jarduera horietarako sariak eta garaikurrak ematen direnean (**ezin izango dira dirukoak izan**), horiek erosteko emango den gehieneko zenbatekoa 1.800,00 eurokoa izango da.*

ELKARTE SOZIOKULTURALENTZAT

Jarduera soziokulturalak (emanaldiak, antzezlanak, hitzaldiak, lehiaketa artistiko-kulturalak, elkartearen jarduerarekin lotutako ikastaroak eta prestakuntza tailerrak).



4.3.- DIRUZ LAGUNDU EZIN DIREN GASTUAK

Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak honako jarduerak hauek:

- *Bazkariak.*
- *Jarduera piroteknikoak.*
- *Ez dira diruz lagunduko lunch edo askari handiak, ez badaude jarduerak bati lotuta antolatuta.*
- *Ez dira diruz lagunduko edozein motatako sariak, berdin du nolakoak diren, gabonetako hainbat ekitalditan.*
- *Dietak.*
- *Eskudirutan emandako sariak.*

5. ARTIKULUA.- ESKATZAILEAK.

5.1.- Dirulaguntza eskatu ahal izango du: irabazi asmorik gabeko edozein elkarte eta/edo banakako, izaera kulturalako, kirol- edo gizarte-izaerako jarduerak edo programak egiteko edo sustatzeko interesa badute eta jarduerak horiek Aiarako udalerrira osorako interes sozial edo erabilera publikoa badute. Horiek 2021ean zehar gauzatu beharko dira eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- *Aiara finkatutako egoitza soziala.*
- *Pertsona juridiko bat bada, estatutuek berariaz jaso beharko dute xedea interes orokorrekoa edo zerbitzu publikoa ematea dela; gainera, irabazi asmorik gabe osatuta egon beharko da.*
- *Udal honetako Erregistroan dokumentuen bidez frogatzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituztela.*
- *Elkartearen jarduerak-erloa Aiara gauzatzea.*
- *Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, **EZ** dagoela dirulaguntzen onuradun izateko inolako debekutan.*

5.1.2- Horrez gain, onuradun izan ahalko dira Etxaurren Ikastolako IGEa eta Aiara dauden gainerako hezkuntza-zentroak, betiere deialdi honen xede berak badituzte eta aipatutako laguntzak eskolako arlotik kanpo egindako jardueren gastuak estaltzeko erabiliko bada. Egongo den salbuespen bakarra Olentzero egunean eta Inauterietan izango da, bertan hezkuntza-komunitateak laguntza izango baitu.

5.1.3- Era berean, Olentzeroren ospakizunetarako eta Erregeen Kabalgata egiteko dirulaguntza jaso ahalko dute Administrazio Batzordeek, baldin eta deialdi honen xede berekin bat badatoz.



5.2.- Debekuak: Ezin izango dute parte hartu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elkarte edo erakundeak.

6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAK.

6.1.- Honako hau izango da eskabideak aurkezteko epea: Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hilabete 1.

6.2.- Eskabideak izapidetzea eta horien inguruko informazioa: deialdiaren inguruko informazio guztia udaleko webgunean dago eskuragarri (www.aiarakoudala.eus).

Horrez gain, eskabideak Aiarako Udalean bildu eta entregatu ahal izango dira.

6.3.- Aurkeztu beharreko dokumentuak:

6.3.1- Pertsona fisikoek aurkeztutako eskabideen kasuan:

- *NANaren fotokopia (udaletxean oraindik aurkeztu ez bada).*
- *Zinpeko aitortpena, elkarte mantentzeko edo erakunde publiko edo pribaturen batek jarduera hori egiteko beste dirulaguntzaren bat eskatu eta/edo emateari buruzkoa. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta hori eman den zehaztu beharko da.*
- *Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiarako Udalak, horren ordezkartzan, eskatzaileei dagozkien Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zergak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eska diezaion administrazio eskudunari (4. eranskina).*

6.3.2.- Elkarteek aurkeztutako eskaeren kasuan:

- *Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia, bere izenean edo elkartearen ordezkari gisa (udaletxean oraindik aurkeztu ez bada).*
- *Elkartearen IFZren fotokopia, udaletxean oraindik aurkeztu ez bada.*
- *Aiarako Elkartearen Udalaren Erregistroan alta emanda ez badago, dirulaguntza eskatzen den unean bertan inskribatu beharko da, eta honako hauek erantsi beharko ditu: erakundearen estatutuen fotokopia, legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria eta IFZren egiaztatzea.*

6.4.- Eskabidea:

1. eranskina aurkeztu beharko da (behar bezala bete eta sinatua).

Ohiko gastuen eta inbertsioen urteko dirulaguntza eskatzeko 2. eranskina ere aurkeztu beharko da (behar bezala beteta eta sinatua).



Jarduerak egiteko dirulaguntza eskatzeko, gainera, 3.1 eranskinen 3.1 eranskina eta 3. eranskina aurkeztu beharko dira, eta urtean zehar egin nahi diren jarduera edo programa adina ale aurkeztu beharko dira (behar bezala sinatuta).

4. eranskina aurkeztu beharko da behar bezala bete eta sinatua.

Era berean, eskaera guztietan kontuan hartu beharko da beste administrazio edo erakunde batzuen dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortzen den finantzazio osoa. Laguntzek, parte-hartzaileen ekarpenek, ezingo dute aurkeztutako programaren kostua gainditu.

Lortzen diren diru-sarrerak horiek guztiak dirulaguntza justifikatzeko kontuan sartu beharko dira.

Udalak erakunde eskatzaileei nahi adina argibide eskatu ahalko dizkie, aurkeztutako eskaera hobeki baloratzeko.

Eskabidea behar bezala formalizatuta ez badago, edo aipatutako daturen bat edo dokumenturen bat falta bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari 10 egun baliouduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, horrelakorik egin ezean, eskaera artxibatuko dela beste izapiderik egin gabe.

7. ARTIKULUA.- PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA EGITEA.

Dirulaguntza jasotzen duen pertsona edo erakunde orok jendaurrean jarri beharko du udal-finantzaketa hori, sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetan argitara ditzakeen iragarkietan udalaren logotipoa jarrita. Horretarako, Aiarako Udalak erakunde edo pertsona interesdunei udaleko logotipoa emango die.

Halaber, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitate-elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, betiere euskararen erabilerari buruzko udal-ordenantza errespetatuz erabiliko dira.

Era berean, ezinbestekoa izango da beharrezko berdintasun irizpideak sartzea, genero ikuspegia ezartzeko. (Hizkuntza eta irudi inklusiboak).

Aiarako Udalak diruz lagundutako jarduera guztien berri eman beharko da jarduera egin baino lehen, interesa duten guztiek parte hartu ahal izan dezaten. Era berean, Udalari jakinarazi beharko zaio noiz egingo den, egin baino zazpi egun lehenago, Udalak egokitzat jotzen dituen baliabideen bidez hedapena egin dezan.

8. ARTIKULUA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Honako hauek izango dira pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak:

- *Helburua betetzea, egitasmoa betearaztea, ekintza gauzatzea edo dirulaguntza jasotzea arrazoitzen duen jokabidea hartzea.*



- *Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, hala badagokio. Era berean, justifikatu egin beharko da dirulaguntza ematea eta jasotzearen xedea bete dela.*
- *Ez jartzea eragozpenik dirulaguntza ematen duen organoak edota beste kontrol-organoez egin behar dituzten egiaztatze guztiak eta finantza-kontrola gauzatzeko. Hori dela eta, egintza horiek betetzean eskatu ahal zaien informazio guztia eman beharko dute.*
- *Organo emaileari jakinaraztea diruz lagundutako ekintza horiek gauzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edota baliabideak jaso badira. Jakinarazpen hori egin behar da berau ezagutu bezain laster eta, edozein kasutan, jasotako funtsei ezarpenaren justifikazioa egin baino lehen.*
- *Dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela frogatzea.*
- *Jasotako funtsak ezarri direla egiaztatzen duten frogagiriak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, horiexek erabili ahal direlako egiaztatze eta kontrola egiteko.*
- *Programa edo jarduera iragarri eta garatzea, Aiarako Udalaren euskara ordenantzaaren arabera.*
- *Bere jardueren eta kartelen komunikazioan berdintasun-irizpideei jarraitzea, hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliz. Horretarako, Udalak prestakuntza eta laguntza tekniko jarraitua antolatuko die elkarteei berdintasunaren arloan.*
- *Berdintasunaren arloan Udalak antolatzen dituen prestakuntza jardunaldietara joatea, elkarteei banakako laguntza adostua emateko prozesuaren barruan, honako helburu hauekin:*
 - *Hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko ikastaro bat egitea.*
 - *Estatutuak aldatzea genero ikuspegia sartzeko.*
 - *Zuzendaritza batzordeak aldatzea parekideak izan daitezen.*
 - *Elkarteen jardueretan indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea.*

9. ARTIKULUA.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK.

Dirulaguntzak ematerakoan aintzat hartzeko irizpideak izango dira honako hauek:

- *Proiektuaren hedadura maila (jarduerak egiten dituzten onuradunen kopurua).*
- *Erakunde eskatzaileak diharduen eremuan erakutsitako jarraipena eta egonkortasuna.*
- *Jarduerak euskaraz garatzea.*



- *Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko duen zailtasuna, eskatutako zenbatekoari dagokionez dituen baliabide ekonomikoak, eta baliabideak eta finantzabideak bilatzeko ahalegina.*
- *Programaren eta aurkeztutako jardueren bideragarritasuna.*
- *Aurkeztutako balantze ekonomikoa.*
- *Berdintasun eta aniztasun irizpideak, honako kasu hauetan:*
 - o *Diruz lagundutako proiektu edo jarduerak genero ikuspegia jasotzea diagnostikoan, helburuetan, jardueraren garapenean edo justifikazio-memorian.*
 - o *Jardueran emakumeen egoera, behar, interes, asmo eta arazo espezifikoak kontuan hartzea.*
 - o *Jarduerak genero-estereotipoak eta -rolak aldatzeko ahalegina egitea.*
 - o *Jarduerak gizonezkoak zaintza-lanetan sartzeko edo gurasoen eta seme-alaben arteko jarduerak sustatzea.*
 - o *Jarduerak haurrak batera zaintzeko sistemak aurreikustea, gurasoek egin dezaten, eta bizitza pertsonala eta familiakoa jardueraren garapenarekin uztartzeko aukera ematen duten ordutegi eta tokietan.*
 - o *Onuradunak gutxienez % 40 emakumeak izatea.*

10. ARTIKULUA.- EBAZPENERAKO ORGANO ESKUDUNA.

Alkate udalburuak izanen du dirulaguntza emateko eskumena, Kultura-teknikariak txostena egin ondoren, eta ondoren dagokion informazio batzordeari horren berri emanen dio.

11. ARTIKULUA.- EBAZPENERAKO ETA JAKINARAZPENERAKO EPEA.

Eskabideak ebazteko eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita, eta emandako eta ukatutako dirulaguntzak jakinaraziko dira.

12. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA.

12.1- Justifikatzeko epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaileek 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dute dirulaguntzaren justifikazioa. Epe horretan dirulaguntza ildoei dagozkien faktura guztiak eta eranskinak aurkeztu beharko dira, behar bezala beteak eta sinatua

12.2.- Dirulaguntzak justifikatzea:

Dirulaguntzetarako aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez bakarrik Udalak emandako kopurua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak dioen moduan.

12.3.- Justifikatzeko sistema:

Justifikazioak honako hau barne hartu beharko du:



- 5. eranskina pertsona edo elkarte eskatzaile guztientzat.
- 6. eranskina ohiko gastuetarako laguntza eskatu duten elkarte guztientzat.
- 7. eranskina pertsona edo elkarte eskatzaile guztientzat. Jarduera bakoitzeko bat eman beharko da, behar bezala beteta.
- Kilometrajea justifikatzeko: 8. eranskina, garraio gastuak eskatu dituzten pertsona edo elkarte guztientzat; ibilgailuaren edo jardueraren antolatzailearen zinpeko aitortpena erantsi beharko da, ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan doazen pertsonen identifikazioa adieraziz.
 - a) Antolatzaileak baldin bada: elkarteak ekitaldira joan dela ziurtatzen duen agiria eta elkarteak berak prestatutako agiria aurkeztu beharko dira, honako hauek barne: ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta bertaratu diren pertsona guztien identifikazioa, izen-deiturak, NAN eta bertaratutako pertsonen sinadura.
 - b) Antolatzaileak ez dagoenean: elkarteak berak prestatutako agiria aurkeztu beharko da, honako hauek jasoko dituena: ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta bertaratutako pertsona guztien izen-deiturak, NAN eta sinadura.
- Egindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpulsatuak.
- Federazio-fitxen kasuan, dirulaguntza eskatu zaien pertsonen zerrenda.
- Ordainketa-ziurtagiriak: (faktura eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa da dagokion saltokiak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilua jartzea, eskuz sinatuta, edo enpresariak faktura eskudirutan ordaindu zaiola adierazten duen idatzi bat sinatzea, faktura identifikatuz. Banku-transferentziaren bidez ordaintzen bada, ordainagiria erantsi beharko da; 2.500 eurotik gorako ordainketa guztiak banku-transferentziaz egin behar dira nahitaez).
- Jardueraren berri ematen duen kartelaren, liburuxkaren eta abarren ale bat.
- Dirulaguntza ordaindu ondoren, Aiarako Udalak diruz lagundutako elkarteak beste erakunde publiko eta/edo pribatu batek jarduera bererako emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezagutzen badu, berehala aurkeztu beharko du erakundearen aitortpena eta dirulaguntzaren zenbatekoa udaletxean (behar bezala sinatuta), Udaleko Diruzaintzan dirulaguntzaren gehiegizko zenbatekoa itzultzeko.
- Aurkeztutako fakturen zenbateko osoak ez badu diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 100 estaltzen, edo ez bada diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzen, onuradunak horren berri eman beharko dio Udalari, ordaindutakoa Udaleko Diruzaintzan itzultzeko edo, hala badagokio, emandako dirulaguntza murrizteko.



12.4.- Justifikazio falta edo justifikazio urria:

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. atalean ezarritako moduan.

13. ARTIKULUA.- ORDAINKETA.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bi ordainketaren bidez egingo da:

- % 80 emakida ebazten deneko momentuan.
- Dirulaguntzaren gainerakoa aurreko puntuan aipatutako justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

14. ARTIKULUA.- EZ-BETETZEA ETA ZENBATEKOA ITZULTZEKO PROZEDURA.

Onuradunak oinarri hauetan edo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eta aurkeztu behar dituen datuak eta dokumentuak faltsuak badira eta ezkututzen badira, dirulaguntza ezeztatu egingo da eta, hala badagokio, oker ordaindutako zenbatekoa itzuli egingo da.

15. ARTIKULUA.- GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

Oinarri hauen interpretazioan egon daitekeen edozein zalantza Alkatezjak ebatziko du, aurretiaz dagokion informazio batzordearen txostena izan ondoren.

Oinarri hauetan aurreikusita guztia Aiarako Udalaren Udal-dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailean ezarritakoaren arabera izango da.”

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du Oinarrien aurka bozkatuko duela, eta honako hau dioen idatzi bat irakurri du:

“AURKA BOZKATUKO DUGU. MARTXOAN ez zen kulturako ohiko bilkurarik egin, baina euskarako bilkuran, kultura-batzordeko presidenteak adierazi zuen gobernu taldeak ez zuela oinarriak aldatzeko asmorik, eta udal-talderen batek ekarpenik egingo nahiko balu apirilaren 6a baino lehen egin beharko zuela.

AIARA BATUZek IDATZI BAT BIDALI ZUEN ETA BERTAN ESKATZEN ZUEN 2. ARTIKULUA ALDATZEKO, NON DIRULAGUNTZA BI ILDO BARNE HARTZEN DIREN:

- **BAT OHIKO GASTU ETA INBERTSIO-GASTUETARAKOA.**
- **BESTEA URTEAN ZEHAR GAUZATUKO DIREN JARDUERA ETA PROIEKTUETARAKO.**

ALDATZEKO ESKATZEN DUGU IAZ, PANDEMIA DELA ETA, ELKARTEEK EZIN IZAN ZUTELAKO JARDUERA GEHIEGI PROGRAMATU.

ORAINGOZ EGOERA OSO ANTZEKOA DA ETA ZIURRENIK ANTZEKO ZERBAIT GERATU DA; BERAZ, JARDUERETARA BIDERATUTAKO ILDOA GASTATU GABE GERATUKO DA.



IAZ ELKARTE BATZUEK LOKALEN MANTENTZE-LANEN ILDOA HANDITZEKO ESKATU ZUTEN, ETA, HORREN ARABERA, AIARA BATUZ TALDEAN ESKATZEN DUGU HORI AURTENGO OINARRIETAN JASOTZEKO, ETA BATZORDEAN ELKARTEEK EGINDAKO ESKABIDE BERRIAK AZTERTZEKO ETA DIRUAREN BANAKETA BALORATZEKO, ESKATZEN DUTENAREN ARABERA.

EZ BADA AUKERA HORI OINARRIETAN JASOTZEN, ELKARTEEK ESKATU ARREN, HORIEK ARGITARATU ONDOREN EZIN IZANGO DA EGIN (hori esan zigun idazkariak).

GOBERNU TALDEAK AZALDU ZIGUN ELKARTEEK JARDUERAK ANTOLATZEAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUTELA, HAIEN LOKALETAN DIRUA INBERTITZERA BAINO GEHIAGO (ETA HORREKIN ERE ADOS GAUDE), ESPERO DUGU ELKARTEEK 2021ean ZEHAR ORAIN ARTE URTEETAN ZEHAR GAUZATU DITUZTEN JARDUERAK EGIN AHAL IZATEA ETA GURE HERRIAREN BIZIPOZA BERPIZTEA.

GURE TALDEAK AUKERA BAT ESKAINI NAHI DIE NAHI DUTEN BEZALA ANTOLA DAITEZEN GARAI HAUETAN, ETA LOKALAK EGOKITZEA NAHI BADUTE, ORAIN EZ BAITITUZTE HAINBESTE ERABILTZEN. AUKERA HORI EMATEA EZ DU ESAN NAHI HORI EGINGO DUTE, BAINA AUKERA HORI DAGO ETA AZTERTU DEZAKETE.”

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak adierazi du alde bozkatuko dutela, baina esan du pena bat dela elkarteekin kontaktu-erronda bat egin ez izana, ordenantza hau hobetu ahal izateko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du ezohiko egoera bat bizi dugula eta espero dugula kontaktu-erronda horiek beti bezala egin ahal izatea gutxi barru. Azaldu du Elkarteak aurten jarduerak egiten hasi direla eta jarduera gehienak Administrazio Batzordeen jabetzakoak diren lokaletan gauzatzen direla, eta horiek lokalak behar bezala egokitzen dituzte.

Gai hau 2021eko apirilaren 13an eginiko Kultura, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordean landu zen.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, erabaki da EH Bilduren bertaratutako bi kideen aldeko botoarekin eta EAJ-PNV Udal-taldearen kideen aldeko botoarekin, eta AIARA BATUZ Udal-taldearen kidearen aurkako botoarekin:

LEHENENGOA.- Onestea 2021. urterako kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntzak emateko Deialdia.

BIGARRENA.- Onestea Aiarako Udalak 2021. urtean kultura, kirol eta gizarte arloetako dirulaguntzak ematea araupetzen duten lehen jasotako Oinarri Arautzaileak.

HIRUGARRENA.- Deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Aipatutako Oinarrien publizitatea egitea, horien testu osoa ALHAOn argitaratzearen bidez, iragarki bat udaleko Iragarki-taulan jartzearen bidez eta udal-webgunean argitaratzearen bidez.

4.- Nafarroa oinez: dirulaguntza eskabidea 2021.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Nafarroa Oinez 2021erako zuzeneko dirulaguntzaren eskaera; horrek honako hau dio:



“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Nafarroa Oinezek egindako eskabidea (sarrera zk.: 1040; data: 2021/04/06).

AINZAT HARTU DA- Nahikoa kreditu eta kreditu egokia dagoela zuzeneko dirulaguntza honen emakidak hartuko lituzkeen gastuei aurre egiteko; hori 335.481.017 partidaren aurreikusita dago, 2020ko eta 2021era luzatutako aurrekontuaren barnean.

Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako ERABAKI hau onetsi dezala:

Lehenengoa.- Nafarroa Oinez elkarteari (IFZ: G71302871) zuzeneko dirulaguntza bat ematea 300,00 euroko zenbatekoan, datorren urriaren 18ko Nafarroa Oineza ospatzeko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Onestea dagokion gastua, 2020ko eta 2021era luzatutako aurrekontuko 335.481.017 partidaren kargura.

Hirugarrena.- Nafarroa Oinez elkarteari jakinaraztea aipatutako dirulaguntza jasotzeko honako justifikazio dokumentazio hau aurkeztu beharko duela.

- Gauzatutako jardueraren memoria.
- Memoria ekonomikoa, aipatu jardueraren gastu eta diru-sarrera guztiak justifikatzen dituen, beste erakunde edo elkarte batzuetatik jaso diren beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua barne.
- Frogagiriak eta ordainagiriak, Udalak emandako zenbatekoaren adinakoak edo handiagoak.

Dokumentazio hori guztia 2021eko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Ez bada hori egiten, dirulaguntza itzuli beharko da.

Laugarrena.- Erabaki horren berri ematea elkarte eskatzaileari.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”

Gai honen aldeko txostena eman zuen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak 2021eko apirilaren 13ko bilkuran.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak eskatu du euskaraz iristen den dokumentazioa, Aldundiaren kasuan gertatzen den moduan (euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen dugu), guk euskaraz ere jasotzea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Udalak aipatutako dokumentazioa euskaraz iristarazteko konpromisoa hartuko duela.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da eta aho batez onetsi da onestea aipatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.



5.- Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena. Horrek honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- EH Bildu udal-taldeak egindako aldaketa-eskabidea (sarrera zk.: **1063**; data: **2021/04/06**), euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Arautzaileari dagokionez. Izan ere, horrek, gaztelaniazko bertsioan, honako hau dio:

“Hirugarrena.-

b) 16 urte baino gehiago izatea ~~ikastaroan matrikulatzean~~, eta Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programan bertan parte hartzeko ezarritako gutxieneko adina izatea.

Proposamena: b) 16 urte baino gehiago izatea azterketa-garaia iristerakoan, eta Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programan bertan parte hartzeko ezarritako gutxieneko adina izatea.

c) Euskara ikasteko matrikulatuta egotea, ~~1. mailatik (urratsa) 12 mailara~~, biak barne, euskaltegi edo HABEK homologatutako autoikaskuntza zentroren batean (...)

Proposamena: c) Euskara ikasteko matrikulatuta egotea, A1 mailatik C1 mailara (biak barne) edo euskara hobetzeko ikastaroetan, HABEK homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroren batean (...)

e) ~~Hautatutako ikastaroak gutxieneko maila bat (urratsa) eman beharko du ikaskuntza edo alfabetatze prozesuan.~~

Proposamena: paragrafo osoa ezabatzea.

f) Euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan egindako ikastaroei dagokienez, ~~ikasturtean zehar gainditu diren euskalduntze mailak (urratsak) baino ez dira diruz lagunduko, eta, horretarako, maila bakoitzean lortutako emaitza banan-banan aztertuko da. Beraz, aurkezten diren ziurtagirietan, emandako maila (urrats) bakoitzari buruzko informazio hori (gainditzea edo ez) agertu beharko da. Ziurtagiriek emandako maila (urratsa) bakoitzari dagokion asistentziari buruzko informazioa ere eman beharko dute, emandako orduak eta emandako orduak zehaztuz.~~

Proposamena: f) homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Ziurtagiriek, gainera, emandako maila bakoitzari dagokion asistentziari buruzko informazioa ere eman beharko dute, emandako orduak eta emandako orduak zehaztuz.

Udalerrian bertan Udalaren parte-hartzearekin sor daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, beharrezkoa izango da gutxieneko ~~% 80ko~~ bertaratzeta izatea (...)



Proposamena: *Udalerrian bertan Udalaren parte-hartzearekin sor daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, beharrezkoa izango da gutxieneko % 80ko bertaratzea izatea (...)*

Laugarrena.-

a)

- Euskaltegiaren edo HABEk homologatutako autoikaskuntza zentroaren jatorrizko agiriak: ehuneko 75

- Udalaren laguntzaz udalerrian antolatu diren ikastaldeak: ehuneko 75.

- Egonaldiak Familia Euskaldunetan Programan egonaldiak: ehuneko 75.

Proposamena: *a) Euskaltegiaren edo HABEk homologatutako autoikaskuntza zentroaren jatorrizko agiriak: ehuneko 100.*

- Udalaren laguntzaz udalerrian antolatu diren ikastaldeak: ehuneko 100.

- Egonaldiak Familia Euskaldunetan Programan egonaldiak: ehuneko 100.

b) Euskaltegietan edo HABEk homologatutako autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketen kasuan, euskalduntze-prozesuko maila bakoitzak 1. mailatik (urratsa) 12. mailara, eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emango zaio dirulaguntza euskalduntze-prozesu osoan zehar, eskatzaileak dagokion maila (urratsa) gainditu duela egiaztatu ondoren. ~~Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, gehienez ere bi hilabeteko egonaldia lagunduko da pertsona bakoitzeko, eta egonaldia gehienez ere 5 urteko epean egin beharko da. Egonaldiak programako egonaldi bati dagokion dirulaguntza eska daiteke egonaldia egin den urte bereko eskaera epean bakarrik.~~

Proposamena: *paragrafo osoa ezabatzea.*

Bosgarrena.-

c) – Euskaltegiaren edo autoikaskuntza zentro homologatuaren jatorrizko ziurtagiriak: ikasturtean zehar emandako maila (urrats) bakoitzari dagozkion ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasiera eta bukaera data, emandako eta lagundutako irakastorduen kopurua, asistentzia maila gainditu den edo ez, eta emandako maila (urrats) bakoitzeko matrikularen kostua. Barnetegi batera joan badira, kostua honela banakatuta aurkeztu beharko da: batetik, klaseen kostu osoa (maila bakoitzaren kostua (urratsa) banakatuta), eta bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.0}

Proposamena: *c) – Euskaltegiaren edo autoikaskuntza zentro homologatuaren jatorrizko ziurtagiriak: ikastaroko maila bakoitzari dagozkion ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasiera eta bukaera data, emandako eta lagundutako irakastorduen kopurua, dagokion bertaratze-ehunekoarekin, eta matrikularen kostua, emandako maila bakoitzeko banakatuta. Barnetegi batera joan badira, kostua honela banakatuta aurkeztu beharko da: batetik, klaseen kostu osoa (maila bakoitzaren kostua banakatuta), eta bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.*



Seigarrena.-

Eskabideak eta erantsitako agiriak Aiarako Udaletxean aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko abenduaren 1etik 30era bitartean, eta eskabidea egiten den urteko urritik (hau barne) irailera arte (hau barne) egindako ikastaroa edo ikastaroak bakarrik sar daitezke urteko eskabidea bakoitzean.

Proposamena: Eskabideak eta erantsitako agiriak Aiarako Udaletxean aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko urriaren 1etik 31ra bitartean, eta eskabidea egiten den urteko urritik (hau barne) irailera arte (hau barne) egindako ikastaroa edo ikastaroak bakarrik sar daitezke urteko eskabide bakoitzean.

Zortzigarrena.-

(...) Pertsona baten euskalduntze prozesu osorako gehienez ere 2.000 euroko laguntza ezarri da, halako moldez non Aiarako Udalak xede horretarako jasotzen duen kopuru metatuak ez baitu muga hori gaindituko.

Proposamena: paragrafo osoa ezabatzea.

IKUSI DA.- 2021/04/13an egindako Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordean landu zela gaia.

Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako **ERABAKI** hau onetsi dezala:

LEHENENGOA.- Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzea; horren behin betiko testua honako hau da:

Lehenengoa.- Araudiaren xedea.

Araudi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen euskara ikasi eta hobetzeko Udalaren urteko laguntzak arautzea.

Bigarrena.- Bekak emateko erregimena.

Laguntzak emateko, kontuan hartuko da diruz laguntzen ahal den gastua, eta horren ehunekoa araudi honetan ezarritakoa izanen da. Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da eskolei dagokien matrikularen zenbatekoa, eta ez da inolaz ere diruz lagunduko mantenua, ostatua, garraioa eta gaia, Egonaldiak Familia Euskaldunetan programarako ezarritakoa izan ezik.

Euskara ikasteko emandako laguntzak dirulaguntza izango dira, eta, beraz, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/97 Foru Arauaren, azaroaren 17ko 38/03 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren eta dagokion legeria osagarriaren mende egongo dira.

Hirugarrena.- Pertsona onuradunak eta horien betebeharrak.



Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Aiarako udalerrian erroldatuta egotea, diruz lagundu nahi den ikastaroa hasi baino sei hilabete lehenagotik gutxienez etengabe, eta udalerrri horretan bizitzea.

b) 16 urte baino gehiago izatea azterketa-garaia iristerakoan, eta Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programan bertan parte hartzeko ezarritako gutxienerako adina izatea.

c) Euskara ikasteko matrikulatuta egotea, A1 mailatik C2 mailara (biak barne), euskaltegi edo HABEk homologatutako autoikaskuntza zentroren batean, edota Udalaren laguntzaz sortutako ikastaldeetan (...)

d) Barnetegiren bat egitean, soilik eskolak lagunduko dira diruz, mantenua eta ostatua ikaslearen konturakoak izango dira. Beraz, kasu horietan, Udalari aurkeztuko zaion matrikularen egiaztagirian irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak bereizi beharko dira.

e) Euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan egindako ikastaroak diruz lagunduko dira. Ziurtagiriek egindako ikasketa-maila gainditzeari edo ez gainditzeari buruzko informazioa eman beharko dute, emandako orduak eta horietako bakoitzean bertaratutako orduak zehaztuz, gutxienez % 75eko bertaratzea beharko da dirulaguntza jaso ahal izateko. Udalaren parte-hartzearekin udalerrian bertan osa daitezkeen ikaskuntza-taldeen kasuan, gutxienez, % 75eko bertaratzea beharko da dirulaguntza jaso ahal izateko, eta Aiarako Kuadrillako euskara-teknikariek emandako ziurtagiriek maila gainditzeari edo ez gainditzeari eta bertaratze orokorrari buruzko informazioa eman beharko dute.

f) Egonaldiak Familia Euskaldunetan programan parte hartzea: gehienez ere bi hilabeteko egonaldia lagunduko da diruz pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori gehienez 5 urteko epean bete beharko da.

g) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea.

h) Aiarako Udalaren diru-kutxaren ordainketak egunean izatea.

i) Dirulaguntza hauek ematea bateragarria izango da xede bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratzearekin. Xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaera batzuk badaude, eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta hala badagokio, egindako eskabideen fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, bai eta dagozkien ebazpenen fotokopia konpultsatuak (Emana - zenbatekoa barne - / Ukatua), edo ebazpenaren zain dagoela adierazten duen aitortpena ere. Beste dirulaguntza batzuen gaiaren berariazko jarraipena egingo da, eta onuradunak eskatzen zaizkion datuak eman beharko ditu.

j) Bi urteko edo ikasturte akademikoko tartea emango da maila bakoitza gainditzeko. Epe horretatik aurrera, ez da udalaren dirulaguntzarik emango maila bera egin izana egiaztatzeagatik.



k) Eskabidean aurkeztu beharreko datu edo dokumenturen bat falta bada edo faltsua bada, hura deuseza dela deklaratu da, izan ditzakeen erantzukizunez gain. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak.

Laugarrena.- Laguntzen zenbatekoa.

a)- Euskategietan edo HABEk homologatutako autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketak: % 100 (Ehuneko ehun).

- Ikaskuntza-taldeak udalerrian bertan Udalaren parte-hartzearekin: % 100 (Ehuneko ehun).

- Egonaldiak Familia Euskaldunetan programako egonaldiak: % 100 (Ehuneko ehun). Ikastaroen kasuan, laguntzaren ehuneko udal honi dirulaguntza eskatzen zaion urtearen aurreko urteko urritik (hori barne) irailera arte (hori barne) egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikularen kostuari dagokio. Baldin eta Udalaren urteko aurrekontuetako partidari horretarako dagoen diru-kopurua ez bada nahikoa egiaztatutako eskabide guztiak estaltzeko, proportzionalki banatuko dira, baldintza betetzen dituzten eskatzaile guztien matrikularen kostuari dagokion ehuneko proportzional bera jaso dezaten laguntza kontzeptuan.

b) Euskategietan edo HABEk homologatutako autoikaskuntzako zentroetan egindako ikasketen kasuan, A1etik C2ra bitarteko euskalduntze-prozesuko maila bakoitza diruz lagundu ahal izango da, maila gainditu del egiaztatu ondoren, bi urteko epean edo ikasturte akademikoetan. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, gehienez ere bi hilabeteko egonaldia lagunduko da diruz pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori gehienez 5 urteko epean bete beharko da. Egonaldiak programan egindako egonaldi bati dagokion dirulaguntza egonaldia egin zen urte bereko eskabide-epean soilik eskatu ahal izango da.

c) Beste erakunde edo entitate batzuetako laguntzak edo dirulaguntzak badaude, kasu bakoitzerako ezarritako ehuneko emango da, beste erakunde edo entitate batzuek diruz laguntzen ez duten matrikularen kostuari dagokion zatiaren gainean.

d) Barnetegi batean ikasiz gero, eskolen kostua soilik lagunduko da diruz, eta ikaslearen kontura geratuko dira ostatua eta mantenua.

Bosgarrena.- Aurkeztu beharreko dokumentuak

a) Eskabidearen inprimakia, eskatutako datu guztiekin, beste dirulaguntza eskaera batzuk egin diren ala ez adierazten duen aitortpena eta, hala badagokio, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerak erantzunik jaso badu, ebazpenaren fotokopia konpultsatua (emandako edo ukatutako zenbatekoa); ebazpenaren zain badago, horren adierazpena.

b) Eskatzailearen nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua.



c) – *Euskaltegiaren edo autoikaskuntza zentro homologatuaren jatorrizko ziurtagiria. Ikasturtean emandako maila bakoitzari dagozkion ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasiera- eta amaiera-data, emandako eta bertaratutako eskola-orduen kopurua, dagokion bertaratze-ehunekoarekin, bai eta matrikularen kostua ere, emandako maila bakoitzaren eta dagokion maila gaindiko edo ez gainditzearen arabera banakatuta. Barnetegi batean egindako ikasketen kasuan, kostua honela banakatuta aurkeztu beharko da: alde batetik, eskolen guztizko kostua (emandako maila bakoitzaren kostua banakatuta), eta, bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.*

– *Udalerriko bertako ikaskuntza-taldeen jatorrizko ziurtagiriak, Udalaren parte-hartzearekin, Aiarako Kuadrillako euskara-teknikariek emanak. Honako hauek adierazi beharko dituzte: hasiera- eta amaiera-data, emandako eta bertaratutako eskola-orduen kopurua, dagokion bertaratze-ehunekoarekin, bai eta matrikularen kostua ere, emandako maila bakoitzaren eta dagokion maila gaindiko edo ez gainditzearen arabera banakatuta.*

d) *Matrikula ordaindu izanaren banku-erakundearen jatorrizko ziurtagiria.*

e) *Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zergak ordainduta dituela egiaztatzen duena.*

Seigarrena.- Eskabideak eta erantsitako dokumentazioa aurkezteko epea

Eskabideak eta erantsitako dokumentazioa urte bakoitzeko urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko dira Aiarako Udalean, eta urteko eskabide bakoitzean aurreko urteko urritik (hori barne) irailera arte (hori barne) egindako ikastaroa edo ikastaroak soilik sartu ahal izango dira. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, dirulaguntza eskatzen den urte berean egindako egonaldietarako bakarrik eskatu ahal izango da dirulaguntza.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat detektatu bada, Udalak errekerimendua egiten duenetik 10 eguneko epea izango du akatsak zuzentzeko. Epe hori agortuta, eskabidea zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio-baliorik gabe geratuko da.

Zazpigarrena.- Eskabideak aztertzea eta ebaztea

Aiarako Kuadrillako euskara-teknikariek aztertu eta baloratuko dituzte eskabideak, eta txosten bat egingo dute, Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeari jakinarazteko. Egoki iritzi gero, Udalak aurkeztutako dokumentazioei buruzko datuak edo azalpenak eskatu ahal izango ditu, bere azterketa edo balorazioa osatzeko.

Aiarako Udaleko alkate-udalburuari dagokio behin betiko ebazpena ematea. Akordioak laguntza eman edo ukatuko du, eta, kasu horretan, arrazoiak adieraziko ditu. Ebazpena edozein dela ere, aurkaratu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuan eta moduan.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzaren muga



Dirulaguntzen zenbateko osoak, helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik lortutakoak barne, ezingo du inola ere gainditu onuradunak egindako ikastaroaren kostua. Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak onetsitako dirulaguntza berrikusi ahal izango du beste erakunde batzuen laguntzen ebazpena eman ondoren, gainfinantzaziorik egon ez dadin.

Bederatzigarrena.- Kontrola

Dirulaguntza ematen duen organoak egokitzat jotzen dituen administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko, bai eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ere. Onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du, eskatutako datuak emanez.

Hamargarrena.- Dirulaguntza galtzea

Laguntzen onuradunek beherago zehazten diren baldintzetako bat betetzen ez badute, espediente bat hasiko da jasotako zenbatekoak gehi berandutze-interesak itzultzeko, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera. Kasu hauetan irekiko da dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.*
- b) Laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea.*
- c) Aiarako Udalari ez jakinaraztea beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk eman direla, nahi eta Aiarako Udalak dagokion likidazioa onetsi.*
- d) Eta, oro har, ordenantza honetan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.*

Hamaikagarrenak.- Arau-hausteak eta zehapenak

Oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzeak, emandako laguntza galtzeaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren V. tituluaren adierazitako arau-hausteen araubidean eta horiei dagozkien administrazio-zehapenetan sartzeari ekarriko du.

Hamabigarrena.- Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Aiarako Udaleko Alkatetzak ordenantza hau garatzeko behar diren ebazpenak emango ditu.

Ordenantza hau interpretatzeko zalantzarik izanez gero, Alkatetzak ebatziko du, Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren.

Ordenantza hau testu osoa ALHAOn argitaratu ondoren eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako 15 eguneko epea igaro ondoren jarriko da indarrean. Jendeak horren berri izan dezan ematen da argitara”.



BIGARRENA.- *Udal ordenantza hau jendaurrean jartzea, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, eta, hala badagokio, Udalbatzak ebatziko ditu.*

HIRUGARRENA.- *Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da ordura arteko behin-behineko erabakia.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du, adierazi zuten moduan, bere taldeak maila bi urtetan gainditzeko beharra ikusten duela, arrazoizko epe bat emanez.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esan du ordenantza Batzordera itzultzea gustatuko litzaiekeela; izan ere, idatzita dagoen moduan, zalantzak sortzen ditu.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez dagoela eragozpenik Batzordera itzultzeko, baina harrিতa dago ados ez daudelako.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du ez daudela ados maila bi urtetan gainditzeko behararekin; izan ere, batzuk ez dute euskara ikasten tituluak lortzeko helburuarekin.

Alkate jaunak adierazi du ikaskuntza-mota horretarako beste aukera batzuk daudela, hala nola berbalagun programa eta abar.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, aho batez erabaki da gai hori mahai gainean uztea eta hurrengo batzordean aztertzea.

6.- Arabako Foru Kontratazioen Zentralen eskuratzeko-sistema zentralizatuari atxikitzea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren eskuratzeko-sistemari atxikitzeko hitzarmen-eredua.

IKUSI DA.- 1/2015 Foru Araua, urtarrilaren 14koa, eta 12/2014 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, martxoaren 11koa, Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren sorrera, osaera eta funtzionamendua arautzen dituen; hori Arabako Foru Aldundiko, Foru Sektore Publikoko eta Arabako Lurralde Historikoko udal, kuadrilla, mankomunitate eta kontzejuetako (eta haien mendeko erakunde instrumentalen) kontratazio-organoei laguntzeko organo gisa eratzen da, baldin eta kontratazio-sistema horri borondatez atxikitzen bazaizkio.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak, 2016ko martxoaren 17ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren eskuratzeko-sistema zentralizatuari atxikitzea onetsi zuen, zehazten diren ondasun, zerbitzu edo hornidurak kontratatzeko, 1/2015 Foru Arauak araututako Arabako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren bidez, eta Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren eskuratzeko-sistema zentralizatuari atxikitzeko hitzarmena sinatu zuen. Aiarako Udalak Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez eskuratzeko-sistema zentralizatuari atxikitzeko



interesa izaten jarraitzen du; horregatik, aipatutako hitzarmenaren indarraldia bukatutzat ematea eta atxikitzeke beste hitzarmen bat sinatzea erabaki du.

IKUSI DA Kontratazio Zentral horren helburu nagusia dela aipatutako araudiaren eremu subjektiboa osatzen duten erakundeei beharrezko ondasun, zerbitzu edo horniduren kontratazioa erraztea, eta horretarako, kostuak aurrezte, eskuratze-denborak murriztea eta izapideak sinplifikatzea ahalbidetzen duen sistema bat antolatzen du.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako Udalak ondasunak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzeke eskuratze-sistema zentralizatua horri atxikitzeke interesa du, betiere bere interesetarako onuragarria bada.

AINTZAT HARTU DA.- Sistemarekiko hasierako atxikipen horrek ez finantza-konpromisorik, eta ez du esan nahi kontratazio guztiak Arabako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez egin behar direnik. Sistema hori ondasun eta zerbitzu guztiak hornitzeko erabili daiteke, edo horien zati baterako.

Gai honen aldeko txostena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2021eko apirilaren 13ko saioan.

Koldo Mendioroz Golaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak adierazi du bere taldeak aurka bozkatuko duela, uste baitu sistema horrek ETEak kanpoan uzten dituela eta irizpide ekonomikoa gehiago lehenesten duela irizpide soziala baino.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du baldintza-agirietan irizpide sozialak agertzen direla, eta, bestalde, Kontratuen Legeak ezartzen duela, oro har, enpresa txiki eta ertainei laguntzeko loteak egitea kontratuetan.

Esku-hartzeak amaituta, AIARA BATUZ eta EAJ-PNV udal-taldeek ordezkariek aldeko botoarekin eta EH Bildu udal-taldearen ordezkariek aurkako botoarekin erabaki da:

Lehenengoa.- Amaitutzat ematea orain arte indarrean egon den Arabako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren eskuratze-sistema zentralizatuari atxikitzeke hitzarmenaren indarraldia, eta Arabako Foru Aldundiaren eskuratze-sistema zentralizatuari atxikitzea, 1/2015 Foru Arauak araututako Arabako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren bidez zehazten diren ondasun, zerbitzu edo hornidurak kontratatzeke.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena eta beharrezko agiriak sinatzeko, atxikimendu hori gauzatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

7.- Erabaki-proposamena, Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektuaren barruan Murgako lurzatian ekaitz-tanga birkokatzeko aldi baterako okupazioa baimentzeko, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eskatuta.- Jarrian, Udalbatzari jakinarazi zaio Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eskatutako erabaki-proposamena, Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektuaren barruan Murgako lurzatian ekaitz-tanga birkokatzeko aldi baterako okupazioa baimentzeko; horrek honela dio:



“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2021eko otsailaren 15ean aurkeztutako idazkia. Bertan, baimena eskatzen du ekaitz-tanga bat birkokatzeke, “Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, eranskina eta 2. eranskina. Markijanako 1. lotea” proiektuan aurreikusita zegoena. Hasiera batean, proiektuan eraikitzea aurreikusita zegoen 4. poligonoko 649. lurzatian, baina poligono bereko 202. lurzatira eraman nahi da, 30 metroko distantziara, segurtasun-arrazoiengatik, eta 649. lurzatiaren aldi baterako okupazioa handitzeko, ponpaketarako egungo sarbideetik, obrarako sarbideak eratzeko eta pilaketa- eta egitura-guneak jartzeko.

IKUSI DA.- Udal-zerbitzu teknikoan 2021eko martxoaren 5eko txostena, baimenak ematearen aldekoa, eta adierazitako baldintzen mende dago. Bertan, zehazten da udal-baimenak ez dituela salbuesten indarrean dagoen legerian ezartzen dituen baimen sektorialak lortzetik.

EBAZPENA.- Udal-zerbitzu teknikoek adierazi duten moduan, egiaztatu da proiektuan ekaitz-tangarako aurreikusitako kokapena goi-tentsioko lineen dorre baten ondoan zegoela, eta komenigarria da eskatutako 30 metroko distantziara mugitzea, gerta daitezkeen laneko eta ondareko arriskuei aurre egiteko segurtasun-neurri gisa, bai obren gauzatze-fasean, bai instalazioen etorkizuneko funtzionamendurako. Era berean, egokia da 4. Poligonoko 629 lurzatia aldi baterako okupatzea, esku hartzeko lekuetarako sarbidea konpontzeko, ez baitaude lehendik dauden bideen aurrean, eta materialak eta egiturak pilatzeko gune bat izateko, baldin eta sortzen den lursailaren aldaketa eskatzaileak berreraikitzen badu obrak amaitu ondoren, eragindako lursailaren jatorrizko egoera berreskuratuzeko.

EBAZPENA.- Birkokatzean ez dakarrela eragin handiagorik; izan ere, bi lurzatiak udal-titulartasunekoak dira, dagoeneko garatuta dagoen Murgako industrialdearen kudeaketako lursailen hirigintza-lagapenaren ondorioz, eta jabari eta erabilera publikoko berdeguneen izaera dute, eta justifikatuta geratu da lursailak okupatzeko beharra udalaz gairikoa interes publikoko obra baten ondorioz.

AINTZAT HARTU DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen ditu apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan eta Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 74. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako Erabaki hau onetsi dadin proposatu da:

Lehenengoa.- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari baimena ematea “Murgako ekaitz-tanga” birkokatzeke, zeina Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektuan, eranskina eta 2. eranskina. Markijanako 1. Lotea, 4. Poligonoko 649. lurzatian kokatzen zen, eta aipatutako 4. Poligonoko 202. lurzatira eramateko, biak udal-jabetzakoak, eta 30 metroko distantziara, segurtasun-arrazoiengatik. Era berean, 4. poligonoko 649. lurzatiaren aldi baterako okupazioa handitzeko baimena ematea, obrak egiteko behar den epean; horrela, makineria eta langileak behin-behinean sartu ahal izango dira aipatutako obra egiteko, bai eta materialak eta egiturak pilatzeko gunea izango dute, baldin eta aldameneko lurzatietan eraginik ez badago, eta obrak amaitu ondoren, obren ondorio sortzen den lursailaren aldaketa berreraiki egingo bada, lursailen jatorrizko egoera berreskuratuzeko. Udal-zerbitzu teknikoek berrikusiko dute hori.



Interesdunari ohartaraztea udal-baimen horrek ez duela salbuesten indarrean dagoen legerian ezartzen dituen baimen sektorialak lortzetik.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, udal-zerbitzu teknikoen 2021eko martxoaren 5eko txostenaren kopiarekin batera. Horren aurkako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango du hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango du bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Epaitegietan.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”

Gai honen aldeko txostena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2021eko apirilaren 13ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

8.- Kreditu gehigarriaren 1/2021 espedientearen berri ematea, bai eta Idazkari Kontu-hartzaitzaren txostena ere, aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen ondorioetarako.- Jarraian, Udalbatzari kreditu gehigarriaren 1. Espedientearen berri eman zaio. Espediente hori Diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatu da eta Alkatetzaren 2021/195 Dekretuaren bidez onetsi da; horrek honela dio:

“ALKATETZA DEKRETUA

IKUSI DA.- Diruzaintzako gerakinaren zati bat 2020 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako erabiltzeko beharra, 2021era luzatutako 2020ko aurrekontuan gastu-partida batzuk osatzeko edo sortzeko, saihestezinak diren eta 2021eko aurrekontua onetsi arte itxaron ezin duten ordainketak egiteko.

AINZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Alkatetzak honek honako hau **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatzen diren kreditu gehigarriak onestea:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEK 0A/€
920.221080	LANGILEENTZAKO HORNIDURA MATERIALA, COVID-19	1.000,00 €.
330.226011	HERRIKO JAIK	3.410,00 €.
166.226019	ADMINISTRAZIO-BATZARREN ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA	622,70 €.



166.226020	MURGA INDUSTRIALDEKO ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA .	420,70 €.
231.227041	LANTENOKO SUTEAK ERAGINDAKO FAMILIARI OSTATU EMATEA	1.400,00 €.

GUZTIRA: 6.853,4 €

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarrereren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENDAPENA</u>	<u>ZENBATEKOA/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	6.853,4 €.
	GUZTIRA	6.853,4 €.

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrereren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena.- Kontu-hartzaitzak erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondorioekin.

Hirugarrena.- Dekretu honen berri ematea Udaltzari, egiten den lehenengo bilkuran.

ALKATE-UDALBURUA, Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: María Del Carmen Rojo Pitillas.

BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,

Sin.: Clara Furundarena Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Era berean, Kontu-hartzaitzaren 2021eko apirilaren 16ko txostenaren berri eman zaio Udaltzari, Diruzaintzako gerakina kreditu gehigarri hori finantzatzeko erabiltzeagatik aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzeari buruzkoa. Txostena horrek honako hau dio:

“ESKU-HARTZE TXOSTENA

GAIA: Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren konturako aurrekontu-aldaketa.

Aiarako Udaleko Kontu-hartzaitzako karguari datxezkion eginkizunetan oinarrituta, eta kontuan hartuta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko



abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak Diruzaintzako gerakinaren erabileran egindako aldaketak (17/2014 Foru Arauak aldatu zuen arau hori), gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa onartu ahal izateko beharrezkoa izango da Kontu-hartzaitzako txosten bat jakinaraztea Udalbatzari, egonkortasun-helburua ez dela bete egiaztatzeko. Txosten hau eginda, eta bi eranskin ditu:

- *I. eranskina: gerakina erabiltzeko proposamena, kreditu desberdinak gaitzeko.*
- *II. eranskina: Kontu-hartzaitzaren txostena, Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzeko egonkortasuna betetzeko ondorioetarako.*

I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA

2020 LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA, ESPEDIENTE HONEN AURRETIK GASTATU GABEA: **451.698,74 €**.

ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 6.853,4 €

Honako aurrekontu-aplikazio hauek sortzeko:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA/€
920.221080	LANGILEENTZAKO HORNIDURA MATERIALA, COVID-19	1.000,00
330.226011	HERRIKO JAIK	3.410,00
166.226019	ADMINISTRAZIO-BATZARREN ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA	622,70 €
166.226020	MURGA INDUSTRIALDEKO ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA .	420,70 €
231.227041	LANTENOKO SUTEAK ERAGINDAKO FAMILIARI OSTATU EMATEA	1.400,00

ZENBATEKOA GUZTIRA: 6.853,40 €

II. ERANSKINA KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO

I. TXOSTENAREN OINARRIA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez badira, Administrazio ez-betetzailerak ekonomia- eta finantza-plan bat egingo du, abian den urtean eta hurrengoan helburuak edo gastu-araua bete ahal izateko.



Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikuluan ezartzen duenez, aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoia Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzea bada, ekonomia- eta finantza-planaren orde, Udalbatzari jakinaraziko zaio Kontu-hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txostena, eta egoera hori egiaztatuko da. Horrekin batera, toki-korporazioaren finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazioa egingo da, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

a) Erakundearen eta haren mendeko erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, joera-bilakaera, hau da, aldatu behar ez diren politikak, eta aztertutako aldirako aurreikusitako neurrien eragina aintzat hartuta.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioak zein kasu nagusitan oinarrituko diren.

d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak Diruzaintzako gerakina agortzen den unean.

e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.

Txosten hori kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.

Osoko bilkuraren akta, esku hartzeko organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, Plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko. Epe hori igarota Arabako Foru Aldundiak ez badu berariazko ebazpenik eman, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen bidez, Aiarako Udalaren Diruzaintzako gerakina erabiliz, aurrekontu-aldaketaren finantzaketan eragindako ezegonkortasun-egoera aztertu nahi da. Txosten hau espediente horren parte da.

HELBURUAK:

Proposatutako aurrekontu-aldaketa Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatzeak egonkortasun-printzipioa hausten du, baina ez-betetze hori ez da egiturakoa, egoeraren arabera baizik.

Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira. Txosten honen helburua honako hauek egiaztatzea da:

- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintzako gerakin positiboa*
- *Zorpetze finkatuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa*
- *Aurrekontu-egonkortasun finkatua superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (EKS terminoetan)*
- *Gastu-araua betetzea*

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 3. Paragrafoan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, txostena honela egituratuko da:

*1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen **aurrekontu-egonkortasuneko helburuak** betetzen diren edo ez aztertuko da.*

*2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak***



3.- Inbertsioaren funtzionamenduak **gastu arruntean izango duen eragina.**

II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK

Abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakia aipatu behar dugu. Horren arabera, Arabako toki-erakundeen zerga-arauen aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan.

Hala ere, informazioari dagokionez, 2020 ekitaldiari dagokion onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako hauek nabarmentzen ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATEK OA	BETETZEA/EZ BETETZEA
Aurrezki garbi doitua	467.891,52€	POSITIBOA
Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina	590.779,40 €	POSITIBOA
Aurrekontu-emaitza	374.781,68 €	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu-egonkortasuna	350.068,98 €	BETETZEA
Gastu-araua	-307.315,42 €	% 14 BETETZEA

III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK

Epe horretarako Plan Ekonomiko-finantzarioan zifrak proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitzeko, balizko AGERTOKI hau ezartzen da:

- Abiapuntua egoera ekonomikoa mantentzea da, baina oso zuhurrak izan behar dugu jarduketan, egoera ekonomiko ahulean baitaude eragile ekonomikoak, eta horrek eragina izan lezake Udalak jasotzen dituen diru-sarreretan, bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean parte hartzeagatik lortutakoetan.
- Gastuei dagokienez, arlo horretako murrizketak mantentzetik abiatzen gara, bai langileen gastuetarako, bai bestelako gastuetarako, Estatuko aurrekontu orokorren legearen ondorioz.

Ekitaldi honetan, 2020an bezala, abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz Arabako toki-erakundeen zerga-arauen aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan. Hala ere, eta 2021 ekitaldirako indarraldiarekin, Arabako toki-erakundeentzako gehieneko gutxi gorabeherako ezegonkortasun-tasa bat adostu da, Kontuen Europako Sistemaren arabera kalkulatuta, 2021erako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren eta 2020 ekitaldirako Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren arteko aldearen baliokidea. Azken hori Foru Gobernuaren Kontseiluaren apirilaren 21eko 186/2020 Erabakiaren bidez onetsi zen.



MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA

Adierazten diren ekitaldietan magnitudeen bilakaera, likidazioaren ondorioz, honako hauek dira:

HELBURUAK	2.019	2.020
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	305.675,20	350.068,98
<i>Egonkortasunaren/Sarrera ez-finantzarioen %</i>	% 12,75	% 14,64
<i>Gastu-araua</i>	20.388,08	-307.315,42
<i>Zorpetzea</i>	0	0
<i>Aurrezki garbi doituia</i>	361.604,53	467.891,52
<i>Aurrezki garbiaren/Sarrera arrunten %</i>	% 15,56	% 19,57
DIRUZAINZAKO GERAKINA	590.384,93	590.779,40

IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEN DEN UNEAN

III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA

Diruzaintzako gerakin positiboak erakundearen epe laburreko likidezia metatua islatzen du, denboraren une jakin batean, eta eskuragarri dago etorkizun hurbilean gastua finantzatzeko.

Gastu orokorretarako doitutako Diruzaintzako gerakina

Gastu orokorretarako gerakina bat dator aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunen datuekin eta ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulketekin; horrek magnitude horren egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko likidezia errealari buruzko informazioa eskaintzen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA

Aurrezki garbiak Udalbatzak zorpetzeko duen ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunik. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunari buruzko informazioa emango digu, zenbateko eta zer baldintzatan hitzartu daitezkeen jakin arte. Dena den, erakundearen zorpetze-ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, eta, horretarako, ezohiko izaera duten eta errepikakorrek ez diren diru-sarrerak kendu beharko lirateke.

III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA

Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz izan daitezke, eta horrek finantza-karga handitzea eragiten du; izan ere, gainerako gastu arruntari gehituta, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek xurgatzea, eta, ondorioz, aurrezki garbi negatiboa izatea.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA

Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantzaketa-ahalmenaren/beharraren berri ematen digu, eta horrek, zeharka, zorpetzea urtero amortizatzen den kopurutik gora handitzea eragiten du (SEC 95 terminoetan kalkulaturak). Erakundeak finantzatzeko beharra badu (gastu



ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzatzeko gaitasuna badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina adierazten du.

III-C.5 GASTU-ARAU

Gastu-arauak arau fiskal bat ezartzen du, eta horren helburua da gastu konputagarria mugatzea, ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa baino ez hazteko, eta, horrela, aurrezki publiko handiago lortzeko, gastu-gehikuntzari oztopo bat jarri, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera joango ez dena.

III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERAREN ONDORIOAK

Gastuen eta diru-sarreraren egoera-orrietako kapituluetan erabilitako datuen arabera, Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak ez du esan nahi erakunde horrek egiturazko desoreka duenik, baizik eta egoeraren araberrako desoreka, eta urtebeteko epean ezarritako helburuak betetzen dira berriro, Plan ekonomiko-finantzarioa egiteko beharrik gabe.

V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA

Erabilitako proiektioetatik, aurrezki korrante garbi positiboa kalkulatzen da; beraz, kreditu-aldaketa horren ondorioz finantzatu beharreko gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta erakundeak sortutako diru-sarrera arruntek hartu ahal izango dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorpetzerik); beraz, bi datuak batuta, ondoriozta daiteke ez dela konprometitzen haren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna.

Gainera, aintzat hartu behar da proposaturako aldaketek ez dutela etorkizuneko ekitaldietan gastu arrunta nabarmen handituko.

Txostena kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.

Osoko bilkuraren akta, txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko.

Arespalditzan.-

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.: Carmen Rojo Pitillas

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- Alkatetza dekretuen berri ematea. Jarraian, Udalbatzari 2021/151 eta 2021/195 bitarteko (biak barne) Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, eta horien xedea, laburbilduta, honako hau da:

“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/151.- Aiarako Berbalagun-gurasolagun programa dinamizatzeko zerbitzuaren kontratua esleitzeko espedientea onestea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/152.- Udalkideei egindako ekarpen ekonomikoaren hileko txostena onestea, 2021eko otsaila.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/153.- Aiarako Kuadrilla. HHSak kudeatzeko gastuengatiko ekarpen ekonomikoa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/154.- Aiarako Kuadrilla. Gastu orokorren eta bestelakoen ekarpen ekonomikoa, 2021eko lehen hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/155.- Erregistratutako fakturen kontularitza-zerrenda onestea F/2021/2.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/156.- Eskola Agenda 2030 prozesuaren aholkularitza teknikoa kontratazeko esleipenerako espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/157.- T.M.O.- Zehapen-espedientea hasia Luiaiondon estalpea eraikitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/158.- E.G.L.- Luiaiondoko Barrena kalean 2-2C etxebizitzan sukaldea konpontzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/159.- MA.P.C.- Dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/160.- 2-2021 kreditu-gerakina gehitzeko espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/161.- Euskaraz Koop. Elkartea. Egindako eta amaitutako zerbitzu bakoitzeko jarritako fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/162.- MA.M.L. Bidegabeko kobrantzagatiko zabor-tasaren ordainagirien zenbateko itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/163.- Zorroza Gestión SL enpresak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan pertsonatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/164.- Lantenoko Administrazio Batzordea.- Alkatzaren 2020/635 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa baiestea. Dekretu horren bidez, Administrazio Batzordeari ordainsari teknikoen gastuak finantzatzeko ematen zaizkion dirulaguntzak ebatzen dira.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/165.- Aldamoli, S.C.- Murgako baserria birgaitzeko obrak egiteko dokumentua eskatu zitzaion.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/166.- J.B.Z.- Kexaan eraikinaren aurri-deklaraziorako dokumentazioa eskatu zitzaion.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/167.- FAESNOR SA.- Eraikin osagarriak eraisteko lizentzia emateko dokumentazioa eskatu zitzaion.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/168.- FAESNOR SL.- Jardueraren alde aurreko komunikazioa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/169.- Soldata-berrikuspenerako atzerakinen nominei dagokien hileko txostena onestea, 2021eko urtarrila eta otsaila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/170.- Langileen eta alkatearen nominei dagokien hileroko txostena onestea, 2021eko martxoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/171.- JA.G.A.- Erretes Lantenon abeltzaintza-pabiloia eraikitzeke obra-lizentzia eskatzeko dokumentazioa eskatzea..



ALKATETZA DEKRETUA – 2021/172.- JA.G.A.- Abeltzaintza-jarduera irekitzeko lizentzia emateko Jardueraren aldez aurreko komunikazioaren dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/173.- F.R.R. eta P.D.- Menagaraiko etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea eta hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/174.- G.G.E.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/175.- Elkarkidetzaren Pentsioak.- Likidazio-faktura ordainketa onestea, 2021eko martxoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/176.- Udalerriko alderdi politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2021eko martxoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/177.- U.M.A.- Lusiaondon etxebizitza eraikitzeko obragatik hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/178.- T.G. Gizarte-segurantza. 2021eko otsaileko kuotaren ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/179.- Pilbacken SL.- Obra-lizentzia eta obra-hasierako baimena ematea, Murgako pabiloi baten eraikin osagarria eraisteko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/180.- MA.I.I. Etxebizitza lehen aldiz okupatzeko dokumentazioa eskatu zitzaion eta hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/181.- I.L.B.- Izoriako baserria birgaitzeko obrarako lehen okupaziorako lizentzia emateko eta G.R. fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatu zitzaion.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/182.- N.I.E.- Izorian etxebizitza lehen aldiz okupatzeko behin betiko lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/183.- T.E.I.- Fidantza itzultzea, nekazaritza-eraikineko estalia birgaitzeko obrako hondakinak behar bezala kudeatzen zirela bermatzeko utzi zen.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/184.- O.G.SR e/r TUBOS MECÁNICOS NORTE SAU.- Udal-artxiboko espediente eta dokumentuetarako sarbidea eta kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/185.- A.SM.C.- Kexaako lurzatian aspertsoreetarako mahuka kanalizatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/186.- LUIAONDOKO ERABILERA ANITZEKO GUNEA EGOKITZEKO OBRAREN PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO ZERBITZU-KONTRATUA ESLEITZEA (PATXITA ETXEA)

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/187.- Ned Suministro GLP.SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/188.- Nortega E. Distribución SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/189.- Erregistratutako fakturen kontularitza-zerrenda onestea F/2021/3.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/190.-. Etxaurren Ikastola. Guraso Elkarte.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2021eko martxoa.



ALKATETZA DEKRETUA – 2021/191.- Aiarako Udalean lanpostu horren titular den Idazkari Kontu-hartzaileari baimena ematea, zerbitzu-eginkizunen bidez Trapagarango Idazkari izendatzeko, 2021/06/24ra arte.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/192.- Euskal Fondoak.- Kuota sozialaren ekarpena, 2021. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/193.- Udalkideei egindako ekarpen ekonomikoa, 2021eko martxoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/194.- Arabako Foru Aldundiari eskatzea M.C.R.P. Aiarako Udaleko Idazkari Kontu-hartzaile izendatzeko zerbitzu-eginkizunetan.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/195.- 1/2021 kreditu gehigarria onestea, 6.853,4 eurokoa.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

10.- Eskaerak eta galderak.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du, eta Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunari (EAJ-PNV) eskatu dio erantzuteko moduak zaintzeko, batzuetan oso modu nabarrean erantzuten baitu, eta deseroso sentitu baitzen aurreko osoko bilkuran.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du sentitzen duela eta barkamena eskatzen duela bere erantzunarekin deseroso sentitu bazen, baina uste duela ohar hori pertsonalki egin zitekeela, konfiantzaz, osoko bilkuran atera beharrik gabe.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du osoko bilkuraren akta irakurtzean nola sentitu zen gogoratu duela, eta osoko bilkuran azaldu du, jasota gera dadin eta berriro gerta ez dadin.

- AP-68 autobidearen doakotasunaren aldeko plataformari dagokionez, adierazi du informazioa jasotzen aritu direla eta datorren hilean datu guztiak eman ahal izatea espero duela.
- Babes energetikoari buruzko legeari dagokionez, horren inguruan zerbait egingo den eta Administrazio Batzordeekin batera egingo del ala ez jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Ingurumen teknikariak presatu duela dirulaguntza eskatzeko dokumentazio guztia, eta Administrazio Batzorde guztiek bihar goizean jasoko dutela, eta teknikaria prest egongo dela horren inguruan sor dakiekeen edozein zalantza argitzeko.

- Administrazio Batzordeak Zuhatzako Plan Partzialaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokionez, adierazi du ezohiko osoko bilkuraren akta falta zaiola, non Aldundiaren eta Zuhatzaren arteko epaiketan parte hartzea erabakitzen den, eta gai hori nola dagoen jakiteko eskatu du.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du Zuhatzako Administrazio Batzordeak auzia geldiarazteko eskatu zuela, erredakzio taldeari txosten bat eskatu zitzaiolako; baina hori zerbitzu juridikoei eta Udalbatzako idazkariak aztertu zuten, eta Gobernu Taldearekin batera, uste zuten beharrezkoa zela lehenbailehen argitzea Plan Partzialaren izapidetzea zuzena izan zen, are gehiago kontuan hartuta sustatzaile bat Plan Partzialaren garapena izapidetzen ari dela. Gaineratu du, gainera, bi gai desberdin direla, txostena HAPOn Plan Partziala sartzeko arrazoiari buruzkoa baita, baina, baina errekursoan epaile batek lehenbailehen argitu nahi du plan partzial horren izapidetzean akatsik dagoen.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak argitu du ezohiko osoko bilkura egin ondoren mugimendurik egon den jakitea eskatzen zuela, eta jakin nahi du zergatik hartu den erantzun bat emateko erabakia, besteei galdetu gabe.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du beharrezkoa dela epaileak lehenbailehen erabakitzea, sustatzaileak bere jarduerarekin jarraitzen duelako.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du egiten ari diren urratsen berri eman behar zaiela, are gehiago kontuan hartuta zalantzak agertu zirela prozeduran pertsonatzerakoan.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du ea jakina den zergatik eskatu duen Zuhatzako Administrazio Batzordeak errekursoa geldiarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du HAPOk erredakzio taldeari txosten eskatu zitzaiolako Plan Orokorrean Plan Partziala mantentzeko buruz, eta biak bi gai desberdin dira.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du kezkatuta dagoela oso gai sentikorra delako, eta ordezkaritza emateko orduan zalantzak agertu zituztenean, esan zuten ez zutela erabakirik hartuko, eta besteei jakinarazi gabe hartu dituzte erabakiak.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du lehentasuna duela Plan Partzialaren baliozkotasunari buruzko gaia lehenbailehen argitzeko interes orokorrak.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du ulertzen dela Udalak bat egin duela Aldundiarekin.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Udala berera doala, eta ez dakiela Aldundiak zer erantzun duen. Adierazi du Zuhatzako Administrazio Batzordeak behin eta berriz adierazi duela Plan Partziala gaizki izapidetuta dela, baina Udaleko zerbitzu juridikoei esan dute ondo izapidetuta dela, eta hori lehenbailehen argitu behar da.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak Tubacexeko eta Aiaraldeko beste enpresa batzuetako langileen borrokaren egoera gogorarazi du, eta ekarpenak



egiteko kon-zenbaki bat eman du. Eskatu du jakitea zergatik eskertu duen EAJ-PNVk Batzordeak EH Bilduk jaien pregoiari buruz egindako proposamena onartu ez izana, prentsak adierazi duenez; eta, gainera, eskatu du jakiteko norekin hitz egin den. Gaineratu du bere pregoi-proposamena asmo onekoa zela, eta, gainera, Tubacexentzako irtenbidea EAJ-PNVren esku dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez duela onartuko EAJ Tubacexeko langileen aurka agertzen dela esaten duen moduko baieztapenik. Gaineratu du Enpresa Batzordeak prentsaren bidez jakin zuela proposamenaren berri, eta komunikatu bat igorri zuela, zeina Gobernu Talde honi zuzendu baitzitzaion. Enpresa Batzordeari eskertzen zaio langileak defendatzeko egiten ari den lana eta erantzun izana. Gaineratu du, adierazi ziotela proposamenari uko egiteko komunikatua Enpresa Batzorde osoak sinatu zuela eta Udalari bidali zitzaiola.

Tubacexeko eta Aiaraldeko beste enpresa batzuetako langileei ematen zaien laguntzari dagokionez, bat dator horrekin, eta ez du onartzen EH Bilduk eta Koldo Medioroz zinegotzi jaunak Gobernu Talde hau langileen aurka jartzea, eta EAJ langileen aurka doala dioen baieztapena salatu nahi du, adierazpen hori demagogia delako.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak adierazi du langile horiek ez dutela asmo onen beharrik, baizik eta keinuak, hala nola dirua ematea aipatzen duen banku-kontuan, berak egiten duen moduan.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak gogorarazi du bakoitzak bere ekarpenak publiko egin gabe egiten dituela.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak adierazi du norbait iraindu badu barkamena eskatzen duela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du Koldo Mendioroz Goldaz zinegotzi jaunak esan nahi zuela EAJk beraiena ez zen proposamen bati emandako erantzuna eskertu duela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak langileen ordezkartzari osoko bilkuraren babesa berretsi dio, eta azpimarratu du, EAJren eta gobernu taldearen bozeramailea den aldetik, Enpresa Batzordearen erantzuna eta lana eskertu dituela.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura amaitutzat eman du arratsaldeko hogeiak eta hogeita hamar minutuak direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, neuk, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko apirilaren hogeita bian.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.